

Lee el contenido en **castellano** [aquí](#). (más abajo)



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES

Ikasle Kontseilua

Berripapera
2025eko azaroa

KAIXO LAGUN!!

Azaroa hilabete bizia izan da EHUko Ikasle Kontseiluarentzat: Ikasleen Ordezkaritzaren XIII. Formakuntza Jardunaldiak antolatu ditugu, azaroaren 25ean etenaldi akademiko bat bultzatu dugu mobilizazioetan parte hartzea errazteko, elkarreentzako diru-laguntza deialdi berria jarri da martxan eta CREUPen Batzar Orokorrean parte hartu dugu. Aldi berean, unibertsitate publikoaren finantzaketari buruzko adierazpen bat onartu du Klaustroak.

Berripaper honekin, guzti honen berri eman nahi dizuegu eta, batez ere, ikasleen ordezkaritza-organoetan gertatzen dena hemen ikasten dugunon benetako bizitzara hurbildu. Espero dugu honek gertatzen ari dena hobeto ulertzen lagunduko dizuela eta parte hartzera animatuko zaituztela.

Agur bat,

EHUko Ikasle Kontseiluko taldea

2025 AZAROA LABURPENA



IKASLE ORDEZKARITZAREN XIII. FORMAKUNTZA JARDUNALDIAK

Ikasle Ordezkaritzaren XIII. Formakuntza Jardunaldiak hilabeteko momenturik berezietako bat izan dira. Asteburu bat elkartu ginen gure unibertsitateko ikasleen ordezkari buruz ikasteko, hausnartzeko eta partekatzeke.

Helburua: ordezkariak jende berriari aurkeztea, dagoeneko parte hartzen dutenei bultzada bat ematea eta tresna praktikoak eskaintzea, zentroetan eta campusetan egiten dugunak gero eta eragin handiagoa izan dezan. Elkar hobeto ezagutzeko, kezak partekatzeke eta irtenbideak bilatzeko espazioa ere izan dira.



Jardunaldiak ostiralean, hilak 21, hasi ziren, Ikasletxean egindako irekiera ekitaldiarekin, Partaidetza eta Unibertsitate Bizitzarako lehendakariordeak, Ikasle Kontseiluko presidentek, EHUko Ikasleen Partaidetza zuzendariak eta Joxerra Bengoetxea errektoreak hitzaldiak emanez.

Mahai-inguru bat egin genuen ere Izaro Gorostidi (Ikasleen Partaidetza zuzendaria), Iñigo Ugedo (Ikasle Kontseiluko presidentea), Saioa Jiménez (Ikasle Kontseiluko presidenteordea) eta Diego M. Espasa (presidenteorde ohia) ikasleekin, ikasleen parte-hartzeari eta gaur egun partaidetzak dituen erronkei eta oztopoei buruz.

Asteburuan zehar EHUren egiturari, araudiari, unibertsitate-kalitateari, komunikazio politikoari, osasun mentalari eta talde-kudeaketari buruzko saioak egin ziren. Ez ziren ohiko hitzaldi soilak izan: azalpenak, eguneroko adibideak, eztabaidak eta talde txikietako dinamikak uztartu genituen.

Gure helburua pertsona bakoitzak entzundakoa bere zentzura eraman ahal izatea eta jardunaldietatik tresna gehiagoz, segurtasun handiagoz eta zalantzak, gatazkak edo ideia berriak sortzen direnean jo ahal izango duen sare zabalago batez irtetea zen.



A25 ETENALDI AKADEMIKOA

Azaroaren 25ean, greba akademiko bat antolatu genuen EHU osoan, ikasleek manifestazio feministetan parte hartu ahal izateko. Indarkeriarik eta diskriminaziorik gabeko unibertsitate bat eskatzen dugu, jazarpena eta sexismo estrukturala serio hartzen dituen eta bere campus guztietan benetako hezkuntza feminista eta interseksionala lortzeko bidean doana.

Irakurri gehiago



LAGUNTZA EKONOMIKOAK

Ikasle elkarte, fakultate kontseilu eta sektore-elkarteentzako laguntza ekonomikoetarako deialdi berri bat abiarazi dugu. Ikasleei laguntza eman nahi diegu ikasturte osoan zehar campus guztietan hitzaldiak, tailerrak, proiektuak eta jarduerak antolatzeko, unibertsitate kritikoagoa, parte-hartzaileagoa eta biziagoa sustatuz.

Irakurri gehiago



CREUP-EN OHIKO BATZAR OROKORRA BARTZELONAKO UNIBERTSITATEAN

Azaroaren 4tik 8ra bitartean, Bartzelonako Unibertsitateak Unibertsitate Publikoetako Ikasle Ordezkarien Koordinazio Organoaren (CREUP) 78. Batzar Nagusia hartu zuen. Gilbert, Valerie eta Iñigok EHuko ikasleen izenean parte hartu zuten ebazpenak eztabaidatzeko eta giza eskubideekin konprometitutako unibertsitate publiko, feminista, arrazakeriaren aurkakoa eta giza eskubideekin konprometitua defendatzeko.



KLAUSTROAREN ADIERAZPENA, EHU-REN FINANTZAKETARI BURUZKOA

Klaustroa EHuko unibertsitate-komunitatearen ordezkartza-organo gorena da: ikasleak, PDI eta PTGAS daude bertan, eta EHUn jarduera-ildo nagusiak markatzen ditu. Azaroaren 20ko bilkuran, unibertsitate publikoak Eusko Jaurlaritzatik jasotzen duen finantzaketari buruzko adierazpen bat onartu zuen gehiengo zabalez.

Testu horretan EHUn azpifinantzaketa salatzen da, eta nola eragiten digun: irakaslerik gabe geratzen diren irakasgaiak, ikerketarako laguntza tekniko gutxiago, saturatutako zerbitzuak, hondatzen diren eraikinak eta arreta psikologikorako, irisgarritasunerako edo berdintasunerako baliabide gutxiago. Klaustroak inbertsio publikoa nabarmen handitzea eskatzen du, eta unibertsitate pribatuetan oinarritutako

eredu elitista indartzeko arriskuaz ohartarazten du. Laburbilduz: finantzaketa nahikorik gabe, ikasten dugunaren kalitatea ahuldu egiten da eta ikasleriarentzako benetako aukera-berdintasuna zalantzan jartzen da.

Irakurri gehiago

Honaino iritsi bazara, eskerrik asko irakurtzeagatik eta zure unibertsitatean gertatzen denaz arduratzeagatik. Berripaper honekin unibertsitateko politika ikasle gisa dugun eguneroko bizitzara hurbiltzea dugu helburu. Zerbait faltan botatzen baduzu edo gairen bat xehetasun gehiagorekin azaltzea nahi baduzu, zure berri izatea gustatuko litzaiguke: idatzi Kontseiluaren helbide elektronikora (ikasle.kontseilua@ehu.eus) edo jarri gurekin harremanetan sare sozialen bidez. Laster arte!

Eskerrik asko!

Web orrialdea



Irakurri emaila [euskaraz](#) [hemen](#).

Consejo de Estudiantes

Newsletter
Noviembre de 2025



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES

HOLA COMPAÑERA/O!!

Noviembre ha sido un mes intenso para el Consejo de Estudiantes de la EHU: hemos celebrado las XIII Jornadas Formativas de Representación Estudiantil, hemos impulsado un paro académico el 25N para facilitar la participación en las movilizaciones, se han abierto nuevas ayudas para asociaciones y hemos participado en la Asamblea General de CREUP, mientras el Claustro aprobaba una declaración sobre la financiación de la universidad pública.

Con esta newsletter queremos ponerte al día de todo eso y, sobre todo, acercar lo que pasa en los órganos de representación a la vida real de quienes estudiamos aquí. Esperamos que te sirva para entender mejor qué se está moviendo y para animarte a formar parte de ello.

Agur bat,

El equipo del Consejo de Estudiantes de la EHU

RESUMEN NOVIEMBRE 2025



**XIII JORNADAS FORMATIVAS DE REPRESENTANTES
ESTUDIANTILES**

Las XIII Jornadas Formativas de Representación Estudiantil han sido uno de los momentos más especiales del mes. Durante un fin de semana nos hemos juntado para formarnos, pensar y compartir cómo queremos que sea la representación en nuestra universidad.

El objetivo: acercar este mundo a gente nueva, dar un empujón a quienes ya están implicadas y ofrecer herramientas prácticas para que lo que hacemos en los centros y campus tenga cada vez más sentido e impacto. Han sido también un espacio para conocernos mejor, compartir preocupaciones y buscar soluciones.



Las jornadas comenzaron el viernes 21 con la inauguración en la Ikasletxea, con intervenciones de la Vicepresidenta de Participación y Vida Universitaria, del presidente del Consejo de Estudiantes, de la Directora de Participación de la EHU y del rector Joxerra Bengoetxea.

Hubo también una mesa redonda con Izaro Gorostidi (Dirección de Participación), Iñigo Ugedo (Presidente del Consejo), Saioa Jiménez (vicepresidenta del Consejo) y Diego M. Espasa (exvicepresidente), sobre participación estudiantil, y los retos y barreras que tiene la participación hoy en día.

Durante el fin de semana se impartieron sesiones sobre estructura de la EHU, normativa, calidad universitaria, comunicación política, salud mental y gestión de equipos. No fueron solo charlas al uso: mezclamos explicaciones, ejemplos del día a día, debate y pequeñas dinámicas en grupos.

Queríamos que cada persona pudiera aplicar lo escuchado en su centro y saliera con más herramientas, más seguridad y más contactos a los que tirar cuando surgen dudas, conflictos o simplemente ganas de probar cosas nuevas.





PARO ACADÉMICO 25N

El 25N impulsamos un paro académico en toda la EHU para que el estudiantado pudiera acudir a las movilizaciones feministas. Reivindicamos una universidad libre de violencias y discriminaciones, que tome en serio el acoso y el machismo estructural y avance hacia una educación feminista e interseccional real en todos sus campus.

[Leer más](#)



AYUDAS ECONÓMICAS

Hemos lanzado una nueva convocatoria de ayudas económicas para asociaciones, Consejos de Estudiantes de centro y asociaciones sectoriales. Queremos apoyar que el estudiantado organice congresos, jornadas, proyectos y actividades a lo largo del curso en todos los campus, para una universidad más crítica, participativa y viva.

[Leer más](#)



78 ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA DE CREUP EN LA UNIVERSITAT DE BARCELONA

Entre el 4 y el 8 de noviembre, la Universitat de Barcelona acogió la 78ª Asamblea General de la Coordinadora de Representantes de Estudiantes de Universidades Públicas (CREUP). Gilber, Valerie e Iñigo acudimos en nombre del estudiantado de la EHU para debatir resoluciones y defender una universidad pública, feminista, antirracista y comprometida con los derechos humanos.



DECLARACIÓN DEL CLAUSTRO SOBRE LA FINANCIACIÓN DE LA EHU

El Claustro es el máximo órgano de representación de la comunidad universitaria de la EHU: en él estamos estudiantes, PDI y PTGAS, y marca las grandes líneas de actuación de la EHU. En la sesión del 20 de noviembre aprobó por amplia mayoría una declaración sobre la financiación que recibe la universidad pública por parte del Gobierno Vasco.

En ese texto se denuncia la infrafinanciación de la EHU y cómo nos afecta: asignaturas que se quedan sin profesorado, menos apoyo técnico para la investigación, servicios saturados, edificios que se deterioran y menos recursos para atención psicológica, accesibilidad o igualdad. El Claustro reclama un aumento sustancial de la inversión pública y alerta del riesgo de reforzar un modelo elitista basado en universidades privadas. En resumen: sin financiación suficiente, la calidad de lo que estudiamos se resiente y la igualdad real de oportunidades para el estudiantado se pone en cuestión.

[Leer más](#)

Si has llegado hasta aquí, gracias por leer y por preocuparte por lo que pasa en tu uni.

Intentamos que esta newsletter sirva para acercar la política universitaria a lo que vivimos cada día como estudiantes. Si echas algo en falta o quieres que expliquemos mejor algún tema, estaremos encantadas de escucharte: escríbenos al correo del Consejo (ikasle.kontseilua@ehu.eus) o por redes. Seguimos.

¡Muchas gracias!

Página web



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES